

Gustal iruinarria, zutik berriro

Duela 25 urte aurkitu zuten Neolito amaierako menhirra, eta eraberritu ostean, berriz ere Valderejoko parkeko Recuencoko mendilerroan jarri dute.

ANAKOZ AMENABAR
Valderejo

Arabako mendebaldeko haranak mugarrira izango du hemendik aurrera, duela bost mila urte izan zuen modu berean, eskualde osoko zaindaria. Valderejoko natur parkea bisitatzen dutenek hiru metro eta erdiko iruinarria ikusi ahal izango dute Recuencoko mendilerroaren erdian. Tona eta erdiko harritzarra, garai batean eskualdeko erreferentzia izandakoa, berriz ere Gaubean dago.

Hogeita bost urte bete dira Felix Murga arkeologo arabarrak, bere ibilaldietako batean, Gustal iruinarria aurkitu zuela. Azken hila-beteetako lanei esker dago egun mendian ikusgai. Pedro Lobo arkeologoa eta Koldo Martinez geologoa aritu dira lanak kudeatzeko. Hainbat ikerketaren ondoren, joan den abuztuan ekin zioten indusketa eta berreraikitze lanei, eta atzo egin zuten aurkezpen ofiziala.

Prozesu osoaren berri eman eta iruinarria aurkezteko, Lobo eta Martinezekin batera, Arabako Aldundiko Lorena Lopez de Lacalle eta Mikel Mintegi diputatuak ere parte hartu zuten atzo goizean


Valderejoko Parketxean eginiko prentsaurrekoan. «Bi arrazoiengatik da garrantzitsua Gustalgo iruinarri hau; batetik, oso iruinarri gutxi dagoelako Araban, eta, bestetik, Valderejoko ingurunea kultura aldetik garrantzi handia hartzen ari delako aurkikuntzokin», nabarmendu zuen Lopez de Lacalle Kultura diputatuak. Izan ere, aurrera begira, Valderejoko parkean aurkitutako ondarea dela eta, margoak eta bestelako irudiak tartean, kultur izaera nabarmentzea aztertzen ari direla iragarri zuen.

Azken aurkikuntzaren kudeaketan ibilitako kideek azaldu zuten, hainbat ezaugarriengatik da Gustalgo menhirra berezia. Garaia eta harriak betetzen zuen funtzioaren inguruko datuak zehatzak ez diren arren, badaude gerturatzeko moduko arrastoak. «Hipotesiak ugari badira ere, harriak hiru metro dituenek, eskualdean erreferentzia irudia izan zela pentsatzen dugu», adierazi zuen Pedro Lobo arkeologoa. Garaia dagokionez, berriz, Neolito amaierakoa dela uste dute, baieztatzetik ez duten arren. «Arrasto organikorik ez dugu aurkitu, eta, beraz, ezin dugu ziur esan, baina Kantauri aldeko gainerakoak ikusita, Kristo aurreko 3.000 urtekoa dela esan daiteke».

Iruinarria aurkitu, altxatu eta garraiatzeko prozesua neketsua izan dela nabarmendu zuen, beste alde batetik, Koldo Martinez geologoa. «Bi zatitan aurkitu genuen, eta kontuan hartuta oso mehea dela, 28 zentrimetro baino ez, lan zaila izan da». Lurpean sartuta aurkitu zuten iruinarriaren



Gustalgo iruinarriaren aurkezpena egin zuten atzo. Arabako Aldundiko diputatuak eta eraberritze lanetan aritutako kideak bildu ziren. JUANAN RUIZ / ARGIAZI PRESS



Felix Murgak iruinarria aurkitu zuenean marraztu zuen zirriborroa.

zati nagusia, eta bestearekin burdinarekin lotu behar izan dute; berreraikitzea zaila izan da.

AURKIKUNTZA. 1982an aurkitu zuten Felix Murga zuhartzarrak Gustalgo menhirra. Ez zen hori aurkitu zuen ondare bakarra, mila aztarnategi baino gehiago topatu baitzituen Araban eta handik kanpo. «Felixek aztarnategiak aurkitzeko dohain berezia zuen, beste pertsona batzuek imaginatuko ez luketen guneetan. Logika guztietatik at zegoen, berak ere ez baitzekien askotan zergatik», adierazi zuen Armando Llanosek Arabako Arkeologia aldezkarian. Felixek berak esan zuen moduan, «naturak, jakin-minak eta kasualitateak» eraman zuten arkeologiara.

Hiru urte dira Gorbeaiko Arlo-biko iruinarria aurkitu zutela, eta harekin batera Gustalgoa da Araban bakarra. Hala ere, uste dute Gaubeako eskualdean besterik izango dela.

berria.info

Euskaldunon sarea

- ✓ **HEMEROTEKA** irekia: sareko osatuena eta **DOAN**
- ✓ Euskal **ABESTI** eta **BIDEOKLIPAK**, inon baino lehen gurean
- ✓ Punta-puntako **BLOGARI** taldea
- ✓ **LEHIAKETAK** eta **SARIAK** astero
- ✓ Unean uneko **ALBISTEAK**

klik
batean
guztia
zure
esku!



300.000 bisita hilean

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**